

## BIGARREN HEZKUNTZA PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Jarduera didaktikoekin osatutako txostenaren bigarren zati hau ikasleek desnutrizioa jasaten duten milioika neska-mutilen errealitatea gertutik ezagutzeko planteatuta dago, ikasle bakoitzak bere inguruneari kontu diezaion ekintza solidarioaren bidez nola lagunduko dien haur horiei.

Ikuspegi metodologikoa, beraz, beste errealitate batzuk EZAGUTU, bere ingurunean KOMUNIKATU eta EKITEA dira.

Helburu orokorrez eta espezifikoez gain, jarduera horiek eta ekintza solidarioak LOMLOE legean bildutako gaitasunak garatzen lagunduko diete.

### HELBURUAK:

Ikuspegi hori gauzatzeko, ikus-entzunezko multzo bat aurkezten dizuegu, baita ikasleekin hainbat gai lantzeko pedagogia-proposamenak ere:

1. Haurren zaurgarritasun-egoera ezagutzea (desnutrizioagatik edo gatazkagatik)
2. Auzi hori mundu-mailako arazo bihurtzen duten zenbakiak ulertzea
3. Ikasleak konponbide gisa jartzea munduaren aurrean
4. Desnutrizioa prebenitu eta harekin amaitzeko laguntza humanitarioa ulertzea

Kausa humanitarioak ulertzeaz gain, gizarte-kontzientzia lortzea ere landu dezakezue ikasleekin:

1. Enpatiaren, justiziaren eta bizikidetzaren balioak indartuz.
2. Ohitura osasungarriak eta janaria alferrik galtzearen aurkako jarrerak bultzatuz.
3. Bakearen eta gizarte-justiziaren aldeko kultura baten alde eginez.

“IZAN ZITEZKEEN BIZITZAK” 12-18 urte. 50 minutu.

### Helburuak

- Emozioak adierazteko kontakizuna lantzea.
- Haurren eskubideak defendatzeko elkarrizketa eta hausnarketa erraztea.
- Balioetan oinarritutako sormen artistikoa eta literarioa bultzatzea.

### Gaitasunak

Talde-lanak mundua aztertzea, ulertzea, hausnartzea, hautematea eta interpretatzea errazten du, eta desberdintasunei eta zailtasunei buruz kontzientziatzea. Partaidetzak, erabakiak hartzeak, arrazoinamendu kritikoak, jarrera eraikitzaileak, errespetuan oinarritutako posizio etikoak eta eskubideen berdintasunak ekintzailatzaren eta gaitasun sozial eta zibikoen garapena bideratzen du.

### Metodologia

Jardueraren garapenean lan-talde txikietako lanarekin konbinatu da, halako errealitateen ezagutzaren alde egin eta partaideen sormena eta eztabaida aktibatuz.

### Materialak

- Idazleen kontakizunak (online ikus daitezke edo inprimatu egin daitezke lan-talde txikietan lan egiteko).

<https://www.savethechildren.es/vidas-que-podrian-haber-sido>

### Jardueraren garapena:

#### *Sarrera (5 minutu)*

Irakasleak azalduko du Gazako gatazkan hil diren adin txikikoei aurpegia jarri nahi dieten eta haien sufrimendua eta beldurrak hitzetan azaldu nahi dituzten Espainiako egileen kontakizun laburrak argitaratzen aritu dela Save the Children. Emozio horiek unibertsalak dira, eta bizi duten gatazka edozein izanik ere, ziurgabetasuna, galera eta ondorioak berak dira neska-mutil guztientzat. Erakundea Eglyntine Jebb-ek sortu zuen, Lehen Mundu Gerra amaitu ostean, eta beraz, gerrak haurrengan sortzen duen hondamena izan zen neska-mutil zaurgarrienen alde egiteko motorra. Orri-markatzailean aurki daitezke Jebb-en esaldiak eta irudia.

#### *Kontakizunak irakurriko ditugu (15 minutu)*

Gela bikotetan edo hiruzpalau laguneko taldeetan banatuko dugu, eta hainbat kontakizun emango zaizkie irakurri eta iruzkintzeko. Kontakizun laburrak dira, eta beraz, bat baino gehiago irakur ditzake talde bakoitzak. Lehen hurbilketaren ondoren, bereziki arreta deitu dien edo hungigarriena iruditu zaien kontakizun hura partekatzerara edo azaltzerara gonbidatuko zaie.

#### *Nire kontakizuna sortzen (30 minutu)*

Bakoitzak bere kontakizuna sortzeko eskatuko zaie, askatasun osoz, eta gatazkek haurrengan dituzten ondorioen unibertsaltasuna kontuan hartuta. Jatorrizko kontakizunak egiten duten moduan, emozioan jar dezakete arreta, galeraren berri eman dezakete edo izena jarri diezaiekete bere kontakizuneko pertsonaiari. Beren kontakizunean edo irakurri dituzten kontakizunetako batean inspiratutako marrazki batekin apain dezakete orri-markatzailea.

### Ebaluazioa

Jarduera amaitzean, taldean hausnartzeko galdera batzuk egin daitezke:

- Nola sentitu zara kontakizunak irakurtzean?
- Zure ustez, zer da zailagoa emozioak hitzekin adieraztea edo marrazkiaren bidez adieraztea?
- Zenbakien aurrean ez gogortzeko, istorio zehatzak ezagutu behar dira?